



KUTXA Enplegatuen Elkarteak	Xendazaletasun atala
108. zka. 5 euskal hiribururen 19. Zeharkaldi Handia	Lemoa-Durango / 2014-10/25-26

Adiskide xendazaleok:

Bilbo atzera utzi eta azken zati honetan Donostiara iritsiko gara, eta horrela amaitutzat emango dugu ibilaldi eder hau, gogoratuko duzuen bezala, 2012ko otsailaren 11n hasia.

Gure lehenengo kontrol-gunea Belatxikieta (635m) izango da, paraje ederra zenbait etxola eta San Inazio basiliza txikiarekin. Aramotz mendilerro txikira iritsiko gara, eta hor ibili beharko dugu neurri batean. Hemendik Pagotzuetako mendi-leporaino iritsiko gara eta handik Gainzorrotz (781m) gailur apalera igotzen hasiko gara, gainean ikuspegi paregabeak ditugularik.

Gero, Betzuenburu haitzak hegaletik igaroko ditugu, eta Mugarrikolanda (760m) mendi-lepo zabalera zuzenduko gara: Mugarra eta Artatzagan haitzen artean kokatua dago, eta kate osoko gailurrik garrantzitsuenara —Mugarra (965)— igotzeko aukera emango digu.

Mugarraren hegoaldeko hormak kirol-eskalada egiteko bide batzuk ditu. Parkeko zuzendaritzak haitzetako faunari emandako babesari esker, eskalada murriztuta dago alde honetan, eta bereziki debekatuta hegaztiak habiak egiteko garaian.

Handik Durangora jaisteko zatia bakarrik falta zaigu, Santa Luzia basilizaren inguruetan dauden baserrien artean. Beherago San Andres eta San Roke basilizen ingurutik igaroko gara, eta Durangon amaituko dugu. Durango herriak 10,91 km²ko eremua du eta 28.691 biztanle (2013). Bere jardura ekonomiko eta biztanle kopuruagatik, Bizkaiko herririk garrantzitsuenak da Bilbo Handia osatzen dutenen ondoren.

Durango leku ireki batean dago Ibaizabal ibaiaren ezkerrean. Hegoaldera, antiklinal txiki batek —konprimitua eta hautsia, geruzak ia bertikal dituen— ekialderantz doan gailur-lerroa sortu du, Durangaldeko haitz gisa ezagutzen diren tontorrekin: Alluitz, Anboto, Mugarra.

Xendazaleok, animo, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Lemoa-Durango

Beharrezko denbora										5,15	
Goranzko desnibel metatua										978 metro	
Beheranzko desnibel metatua										935 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										17.880 metro	
	Ingurunea	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:15
Irteera-ordua	07:20
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea
Prezioa	28 euro

Izena emateko azken eguna: 2014-10-23ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailearik, irteera bertan behera geratuko da.
b/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxabank.es / jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-Lorenzo Urretabizkaia

